

ERABAKITZEKO LAGUNTZA

Garrantzitsua

Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

Mendekotasuna duen 65+ pertsona > Laguntza etxean eta/edo bizitza autonomoa izateko

Fitxa osoa kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio laburtua.](#)

Zertan datza zerbitzu hau?

Erabakiak hartzen laguntzeko neurriek beren bizitzako arlo bati edo batzuei buruz erabakitzen laguntzen diete behar duten helduei ([2.7.2.3 fitxa](#)). Eredu horren bidez, aurreko "tutoretzaren" ordeztu, laguntza-sistema berri bat ezarri da, desgaitasuna edo mendekotasuna duen pertsonaren eskubideak, borondatea eta lehentasunak errespetatzen dituen. Pertsona bakoitzarentzako laguntza zehatzak eta banan-banakoak aurreikusten ditu, bere beharren eta nahien arabera. Laguntza-sistemak ez ditu soilik ondare-izaerako gaiak hartzen kontuan, baita alderdi pertsonalak ere, hala nola bere bizitza arruntari eragiten dioten gaiei buruzko erabakiak (etxebizitza, osasuna, komunikazioak, etab.). Laguntza-neurrien artean, Kuradoretza da desgaitasunen bat duten pertsonentzako etengabeko laguntza, haien behar zehatzak, egoera eta inguruabarrak kontuan hartuta. Nolanahi ere, laguntza-kuradoretza (arau orokor gisa, erabakiak hartzeko laguntza gisa zehazten da) eta ordezkari-tza-kuradoretza (salbuespen gisa, desgaitasuna duen pertsona ordezteko dakar zehazten diren egintzetan) aurre ikusten dira. Horren edukia ebazpen judizial baten bidez zehaztu behar da, eta bertan zehazten dira kuradorearen esku-hartzea zein arloetarako behar den. Laguntza neurriren baten ardura hartuko duten familiei ere aholkularitza eskaintzen die zerbitzuak.

Nork jaso dezake zerbitzu hori?

- Desgaitasuna edo mendekotasuna (I., II. eta III. graduak-25 puntu edo gehiago Mendekotasuna Baloratzeko Baremoan) duten pertsonak, erabakiak hartzeko laguntza behar dutenak.
- Laguntza neurrien ardura hartuko duten senideak edo pertsonak.

Zein baldintza zehatz bete behar dira zerbitzua eskatzeko?

- 18 urte edo gehiago izatea.
- Norberaren eskubideak erabiltzeko eta/edo erabakiak hartzeko laguntza behar izatea.

Zenbat balio du zerbitzuak?

Koordainketaren menpe dagoen zerbitzua, hau da, erabiltzaileak zerbitzuaren zati bat ordaintzen du bere ondare egoeraren arabera

Nori dagokio zerbitzu hori ematea?

Foru Aldundien ardura da zerbitzua ematea.

Non eska dezaket zerbitzua?

Araba

Beroa Fundazioa

(gaixotasun mentala duten pertsonak)**Telefonoa:** 945 214 363

Web: www.fundacionberoa.com

Usoa Fundazioa

(adimen-ezgaitasuna duten pertsonak)**Telefonoa** 945 778 700

Email: usoa@fuso.org

Bizkaia

Gaikuntza

(lehen, Bizkaiko Tutoretza Erakundea)**Email:** gaikuntza@bizkaia.eus

Gipuzkoa

Gertuan Fundazioa

(desgaitasun intelektualak)**Telefonoa:** 943 05 10 95

Email: gertuanfundazioa@gertuanfundazioa.eus

Web: www.gertuanfundazioa.eus/

Hurkoa Fundazioa

(desgaitasun intelektualak)**Telefonoa:** 943 468 956

Email: idazkari@hurkoa.eus

Web: www.hurkoa.eus

Zure auzo, udalerri edo eskualdeko **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan** ere informazioa eska dezakezu.

Zerbitzu honetan interesatuta bazaude edo gehiago jakin nahi baduzu, Gizarte Zerbitzuetan lan egiten duten pertsonekin hitz egin dezakezu. Nola funtzionatzen duen eta laguntza hori nola balia dezakezun azalduko dizute. Esaiguzu zure udalerria eta harremanetarako lekuak eta datuak adieraziko dizkizugu.

Zer arauk ezartzen du zerbitzu hori?

Zorroaren jatorrizko fitxarako sarbidea

Informazio gehiago:

- [Erabakiak hartzen laguntzeko neurriak Araban](#)
- [Erabakiak hartzen laguntzeko neurriak Bizkaian](#)
- [Erabakiak hartzen laguntzeko neurriak Gipuzkoan](#)

[Fitxa laburrera itzuli](#)